

EUSKARAREN JATORRIAREN IV. BILTZARRA



Iruña Oka, 2009ko maiatzaren 23an

Egitaraua

09:45 Harrera, akreditazioa eta liburuen erakusketa

10:00 Agurra eta aurkezpena

10:15 Iruña Oka Argitzeko Koordinakundea: *Zalantzak eta Iruña Oka Argitzeko Adierazpena*

10:45 Koen Van den Driessche: *Observaciones físicas de los ostracones de Iruña Veleia: evidencias no investigadas por la Comisión Científica Asesora*

11:15 Juan Martin Elexpuru: *Iruña-Veleiako euskal ostrakak direla eta Gorrochategui eta Lakarra irakasleen txostenei egindako oharra eta kritikak*

12:00 Mahai ingurua: Ostrakak egiazkoak dira ala ez?

16:00 Tailerrak: *Hiru substratuen teoriaraino oinarrituta, hitzen etimologiak aurkitzen*

17:00 Felix Zubiaga: *Arketipoak eta euskararen jatorria*

18:00 Antonio Arnaiz: *Las Inscripciones en euskara de Iruña Oka y la cultura Usko-Mediterranea*

18:20 Urtzi Ihitza: *Parabreru Vasco-Cántabru/Euskara-Kantabru hiztegia*

18.40 Hiztegi etimologikoa: *Hitzak: haitz (aizkora, aitzurra...), ama-aita, giz (gizaki, gizen..) eta biz (bizi, bizar, bizkor...): Zubiaga, Ihitza, Arnaiz eta Naberan.*

19:30 Mahai ingurua

20:00 Imanol Mugika eta Jesus Segurola hizkuntz ikerleak oroituz.



Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Iruña Oka Argitzeko Koordinakundea: Zalantzak eta Iruña Oka Argitzeko Adierazpena.....	6
3. Koen Van den Driessche: Observaciones físicas de los ostracones de Iruña Veleia: evidencias no investigadas por la Comisión Científica Asesora.....	12
4. Juan Martin Elexpuru: Iruña-Veleiako euskal ostrakak direla eta, Gorrochategui eta Lakarra irakasleen txostenei egindako oharrak eta kritikak	35
5. Tailerrak: Hiru substratuen teorian oinarrituta, hitzen etimologiak aurkitzen.....	67
6. Felix Zubiaga: Arketipoak eta euskararen jatorria	70
7. Antonio Arnaiz: Las Inscripciones en euskara de Iruña Oka y la cultura Usko- Mediterranea	79
8. Urtzi Ihiza: Parabrero Vasco-Cántabru/Euskara-Kantabru hiztegia	87
9. Hiztegi etimologikoa: Hitzak: haitz (aizkora, aitzurra...), ama-aita, giz (gizaki, gizen..) eta biz (bizi, bizar, bizkor...)	90
10. Imanol Mugika eta Jesus Segurola hizkuntz ikerleak oroituz	97
11. Elkartea antolzailea	99



1. Aurkezpena:

Iruña Okako ostrakak egiazkoak ala gezurrezkoak?

2005eko azaroan Arantzazun egin genuen Euskararen Jatorriaren lehenengo Biltzarretik hona gai asko landu dira gure hizkuntzaren historian sakondu nahi duen ekimen honetan. Aurten, Maiatzaren 23an, gaur egun pil-pilean dagoen gai bat aztertzeari ekingo diogu: Iruña Okako ostraka euskaldunak.

Aldundiak eratutako Batzordeko bi hizkuntzalarik zalantzan jarri dituzte euskarazko 136 hitzetik 35. Arrazoi asko eman dute, euren iritziz faltsuak direla esateko, grafia, fonetika, morfologia eta sintaxiaren ikuspuntutik. Hizkuntzalarien iritzia erabakiorra izan da faltsutzat emateko, ia arkeologiaren eta historiaren ikuspuntuen aurretik.

Aldundiaren Batzordearen txostenak

Urtarrilaren 17an Aldundiak txosten guztiak argitaratu zituen alava.net webgunean. Eta, hortik aurrera Lurmen enpresa Iruña Okatik kaleratzeko zeuden arrazoiak aztertzei aukera izan dugu. Emandako arrazoi asko oso pisuzkoak dira baina beste batzuk zalantzarriagoak, eta beste zenbait dagoeneko ezeztatuta geratu dira, jendeak interneten bidez emandako azalpen eta datuei esker.

Horietako batzuk Batzordekideek beren txostenean faltsutze froga gisa jaso izanak ulertezina dirudi. “Descartes” adibidez, argitaratutako argazkian “Miscar” edo antzeko zerbait idatzita dagoela ikusten denean. Edo akats ortografikoak eta sintaktikoak daudela esatea. Hiru alfabeto agertu direla kontuan hartu beharra dago. Beraz, idazten ikasten ari ziren gaztetxoek idatzitako ostrakak direla ikusita, ez dirudi hori esatea argudio sendoa denik. Edo komak agertu izana. Agertutako komak hitzak banatzen daude, ez esaldiak. Idazten ikasteko teknika dirudi gehiago, gaur egun esaldiak banatzeko darabiltzagun komak baino.



Prentsaurre gehiegi, eztabaida gutxiegi

Baina Aldundiak gaia amaitutzat eman du eta eztabaidaren jarraipenari ate guztiak itxi dizkio. Gizartean, ordea, halako egonezin bat dago, ez bakarrik euskarazko hitzengatik, egiazkoak izateak balio sinboliko ikaragarria lukeelako, jarraitu den prozesuagatik ere bai. Azaroaren 19aren ondoren, beste 4-5 prentsaurreko etorri dira, bakoitzean gai desberdinak azalduz: alde egin zuten hiru arkeologoek adierazpenak, materiala fiskalaren esku uztea, Knorren gutuna, kereila sartu zaiola Eliseoren taldeari... Prentsaurre gehiegi egin den bitartean –dena isilean egin balitz prozesua lasaiago bideratuko litzateke-, ez da baliabiderik jarri eztabaida zientifikoan sakontzeko eta, garrantzitsuena zalantzarik gabe, egin zitezkeen datazioak ez dira egin.

Batzorde Zientifikokoan prestigio handia duen Perring arkeologoari ez zitzaion material guztia bidali, azterketa oso bat egin zezan. Hori adierazi zuen bere txostenean eta, egindako kation tasaren bidezko patina azterketa egiazkotasuna ala ez frogatzeko aukera moduan ikusi zuen, benetako zientzian oinarritzen dela baieztatzen. Hau da, aukera



bat eman du datazioak egiteko, kontuan hartu ez dena. Batzordeko Madariaga kimikariak piezak ezin direla datatu esan zuen, gehiegi garbitu direlako. Beraz, Batzordeko bi kideek iritzi kontrajarriak azalduta ere, Madariagari arrazoa eman zaio, nahiz eta prentsaurrean, ostrakak faltsuak zirela frogatzeko kola aztarnak zeudela esan zuen, zeramika zatiak pegatzeko kola erabiltzen dela denok dakigunean. Bestetik, termoluminiszentziaren bidez datazioak ere egin daitezkeela aipatu dute hainbatek interneten. Teknika horren bidez analisatutako ostrakak suntsitu behar badira ere, gai honek duen irismena ikusita, garrantzi gutxiagoko pieza batzuekin egin behar izan da.

Gai horri buruz, Koen Van den Driessche geologoak pieza batzuk datatu daitezkeela azaldu du interneten bidezko foroetan eta Koldo Mitxelenan eta Bartzelonako Euskal Etxean egindako hitzaldietan, kaltzita arrastoak dituztenak eta ke aztarnak dituztenak hain zuzen ere. Datazio horiek tarte handiegia adieraziko ligukete, hau da, ez liguteke zehaztuko zein mendetakoak diren baina orain gutxi faltsutu diren ala ez esango liguteke.

Gaian sakondu beharra

Beraz, Euskararen Jatorriaren Biltzarraren arabera, gaia ez dago itxita eta hizkuntzalaritza, geologia (datazioak) eta arkeologiaren ikuspuntutik gehiago sakondu behar dela uste dugu. Maiatzaren 23ko biltzarrean horixe egingo dugu hain zuzen ere, eta horretarako, eztabaidan parte hartu duten geologo bat eta hizkuntzalari bat gonbidatu ditugu bertara: Koen Van den Driessche eta Juan Martin Elexpuru.

Lehenengoak Batzordeko Madariaga kimikariak egindako lana aztertuko du eta egin daitezkeen datazioen inguruan zehaztapen garrantzitsuak emango ditu. Bere ustez, hizkuntzalariek idazkunak berri berriak direla esatea ez da oso zuhurra izan, besteak beste, salatutako hitz batzuek kaltzita arrastoak dituztelako gainean eta horrek urte batzuk izan ditzaketela frogatuko lukeelako.



Bestetik, idazkunen zenbait zulotan atxikitako konkrezioek, ostrakak aro nuklearraren ostekoak (1945-2009) edo aurrekoak (1945 aurretik) direla jakiteko aukera egonda, analisi gehiago egiteko aukeraz hitz egingo du. Koen geologoaren iritziz, arkeometria arloko adituak behar ziren Batzordean baina ez dira egon. Ostraken zuloetan geratutako lur hondakinak baliatuz eta Madariaga irakasleak egindako eredu kimikoa erabiliz, ostraken posizio estratigrafikoa ezagutzeko aukeraz ere hitz egingo du.

Ondoren Juan Martin Elexpuru ostraketako euskal testuak aztertuko ditu: zenbat, familia, kristautasuna, koloreak, izen propioak, aditzak, grafia eta fonetika... Gero, polemika sortu duten gaiei buruz arituko da, hala nola aspirazioa, artikulua, Z eta K grafia, *polita* eta *denos* hitzei buruz. Horietan, Batzordeko hizkuntzalariei erantzungo die, beste aukerak egon daitezkeela planteatuz.

Arratsaldean, bi tailer izango dira, partaideek hitzen jatorria aurkitzen ikasteko. Ondoren, euskararen jatorriari buruzko teorietan sakonduz, Felix Zubiagak arketipoen teoria azalduko du. Ondoren, komunikazioen barruan, Antonio Arnaizek Iruña Okako idazkunek Mediterraneoan aurkitutako beste idazkunekin dituzten antzekotasunak azalduko ditu eta, ondoren, Urtzi Ihitzak kantabriera-euskara hiztegia aurkeztuko du. Gero hiztegi etimologikoaren gaien, 4 erroen etimologiaren proposamenak eskainiko dizkigute gonbidatutako hizlariak.

Amaitzeko euskararen jatorrian aritu diren eta gaur gurekin ez dauden bi ikerlari omenduko ditugu: Imanol Mujika eta Jesus Segurola.

Laugarren Biltzar hau, aurrekoak bezala, giro adeitsu eta aztertsuan igaro dadila. Beste barik, has dadila Euskararen Jatorriaren IV. Biltzarra.

Hitza sakratua delako gaur emanen diogu
hitz egin nahi duen orori.

Hitza sakratua delako
hitzordua daukagu
hitzaren jatorriarekin.

Hitza sakratua delako
hitz egingo dugu guztiekin.

Hitza sakratua delako
hitzaren jatorriarekin topo egingo dugula
hitz ematen dizuegu.

Hitza sakratua delako
hitza, zurea, gurea, guztiona da

Hitza
sakratua
delako.

